

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA 2026

elhuyar

28

SOZIOLINGUISTIKA

GRAMATIKA

ESAMOLDEA

IRITZIA



SOZIOLINGUISTIKA

TRIBUAREN BERBAK



Hainbat euskara-datu eman dizkigute Tribuaren Berbak programan:

- 852.119 euskaldun
- "Haurrak dira euskaldunenak; hori oso arraroa da hizkuntza gutxituetan"

‘GUZTI HAU’ VS ‘HAU GUZTIA’

GRAMATIKA

Nola esaten da? Zein da zuzena?

Maiz ikusten ditugu honelakoak:

Eduki ***guzti hau** doan ikus dezakezu.

Guk sufritutako oinaze ***guzti hura** ezin daiteke beste inon errepikatu.

Erabilera hori hegoaldean zabaldu da batez ere. Alabaina, Euskaltzaindiaren **4. arauaren** arabera, hobe da erakuslea zenbatzailearen aurretik jartzea. Beraz, aurreko esaldi horiek honela adierazi behar genituzke: Eduki **hau guztia** doan ikus dezakezu / Guk sufritutako oinaze **hura guztia** ezin daiteke beste inon errepikatu.

ESAMOLDEA

BELARRI-ZULORA ESAN

belarri zulora esan, belarri-zulora esan

dio **ad.-lok.** Belarrira esan.

Ik. belarri zulora salatu.

Zatoz honaxe hurbil, Maria; belarri zulora esango dizut.

belarri ertzera esan, belarri-ertzera esan

dio **ad.-lok.** Belarrira esan.

Belarri ertzera hitz goxoak esaten.

AULKIAK ZIENTZIAN

IRITZIA

“Berdintasuna ez da soilik justizia-kontu bat; baita estrategia ekonomiko bat ere. Sektore zientifiko-teknologikoek —fisikan eta ezagutza aurreratuko industrietan oinarritutakoek— Europako esportazioen %44 ingurua ordezkatzeko dute gaur egun.

Etorkizuneko aberastasuna, berrikuntza eta lehiakortasuna ezin dira ziurtatu talentuaren erdia baztertuz. Talentua behar dugu; emakumeak behar ditugu, ez soilik berdintasunagatik, baizik eta maila ekonomiko eta teknologikoak mantendu eta hobetzeko”.



Garbiñe Manterola Arrizabalaga – BRTA

Iturria: Enpresabidea